

Euskaraz irakurtzeak balio bikoitza du!

Euskarazko liburuak erosteko 57 bonoren zozketa

Urtero bezala, Durangoko Azokak (DA!) bere atea irekiko ditu abenduaren 7tik 11ra, bere 57. edizioan. Zalantzarik gabe euskaltzale bilkura garrantzitsua da, euskaraz sorturiko liburu, disko, argitalpen eta beste kultur ekoizpenen inguruan disfrutatzeko tartea eskaintzen diguna.

Andoingo Udalak badu konpromisoa euskal kultura sustatzeko, eta horren barruan andoaindarrek euskaraz gehiago irakur dezaten erronka. Horregatik udazken honetan abian jarri dugu zozketa, Andoingo hiru liburudendekin batera, euskarazko libururik erosten duenari aukera emateko beste bat doan eskuratzeko.

Azaroaren 1etik abenduaren 20ra euskarazko libururen bat erosten duenak txartel bat beteko du bere datuekin, liburudendan dagoen kutxatxoan sartu, eta beste euskarazko liburu bat erosteko **57 bonoen zozketan** hartuko du parte.

Zozketa abenduaren 21ean burutuko da udaletxean, eta irabazleek urtarrilaren 7ra arte izango dute aukera gehieneko 25 euroko bonoa erabiltzeko parte hartzen duten hiru liburudendetan:

- Delgado XIX
- Ernaitza
- Stop

Informazio gehiago:
Andoingo Udaleko Euskara Zerbitzua
euskarazerbitzua@andoain.eus
943 300 831

Andoain, 2022ko urriak 25

Udal Euskara Zerbitzua